



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilak 10

Vitoria-Gasteiz, 10 de enero de 2022

Ekonomia eta Ogasuna

GOBERNU KONTSEILUAK 2023-2026 EUSKAL ESTADISTIKA PLANAREN LEGE-PROIEKTUA ONARTU DU GUZTIZKO 255 ESTADISTIKA- ERAGIKETAREKIN ETA 86 MILIOI EUROKO KOSTUAREKIN LAURTEKOAN

Gobernu Kontseiluak Eustat-Euskal Estatistika Erakundeak bidalitako 2023-2026 Euskal Estatistika Planaren Lege Proiektua onartu du. Proiektuak euskal estatistika-erakundeak burutu beharreko 255 estatistika-eragiketa egitea planteatzen du, eta 86 milioi euroko kostua izango du laurtekoan. Planaren Legea Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-jarduera lau urteetan antolatzeko tresna bat da, eta Eusko Legebiltzarrerara bidaliko da, onar dezan.

Euskal Estatistika Planak indarraldian zehar egin beharreko estatistikak eta izaera horretako beste jarduera batzuk jasotzen ditu. Laurtekoan 255 estatistika-eragiketa egingo dira, aurreko planean (2019-2022) baino 26 estatistika-eragiketa gehiago, hau da, 34 alta eta 8 bajako saldoa.

2023-2026 Planaren kostu osoa 86,6 milioi eurokoa da, eta Eustat da guztizko horren % 71,6an parte, eta, ondoren, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (% 7,2), Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila (% 4,7) eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila (% 4,1).

2023-2026 Plan honetan jasotako 255 estatistika-eragiketetatik Eustatek 131 eragiketa hartzen ditu, eta sailek ondoko hauek:

- Ekonomiaren Garapena, Iraunkortasuna eta Ingurumena: 32 eragiketa
- Kultura eta Hizkuntza Politika: 15 eragiketa
- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak: 14 eragiketa
- Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak: 14 eragiketa
- Osasuna: 11 eragiketa
- Gobernantza Publikoa eta Autogobernua: 10 eragiketa
- Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa: 10 eragiketa
- Lana eta Enplegua: 9 eragiketa
- Ekonomia eta Ogasuna: 4 eragiketa
- Segurtasuna: 4 eragiketa

Hiru foru-aldundiak eta Lehendakaritza ere parte-hartzaile gisa agertzen dira.

Gaikako arloen arabera, kostu handiena duena Demografia eta gizarte-ohiturak da (Planaren guztizkoaren % 13,4), ondoren Ekonomia-kontuak (% 12,3) eta Azpiegitura estatistikoa (% 12,1).

Plana lantzeko 70 estatistika-eragiketako informazio administratiboa erabiltzen da datu-iturri gisa, eta 50 eragiketa gehiagotan informazio osagarria edo

mistoa. Gainera, bederatzi estatistika-eragiketak dagoeneko iturri digitalak dituzte estatistika horiek ekoizteko.

Bestetik, Estatistikaren Legea jarduera estatistikoaren premia berrietara eta informazio-iturri berrietara egokitzea jasotzen du Planaren Legeak.

2023-2026 Euskal Estatistika Plana Euskal Estatistika Erakundeko kide guztien eta horretarako sortutako lantaldeetan parte hartu duten gizarte-eragileen hausnarketaren emaitza izan da.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 4,7 MILIOI EUROAN HANDITU DU 2022-2023 IKASTURTEAN UNIBERTSITATE BEKETARA ZUZENDURIKO DIRU KOPURUA

- **2022-2023 ikasturte honetan bekaren onuradun diren unibertsitate-ikasleek 400 euroko laguntza osagarria jasoko dute**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, 2022-2023 ikasturtean unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko beketara bideratutako diru kopurua 4.772.680 euroan handitzea.

Diru kopuru berri hau Hezkuntza Sailak ikasturte honetarako onartutako unibertsitate-beka deialdiaren zenbatekoari gehitzen zaio. 2022-2023 ikasturterako unibertsitate-beken deialdia 28.560.000 euroko kopuruarekin onartu zen, joan zen ekainaren 21ean.

Handitze honi esker, ikasturte honetan bekaren onuradun diren unibertsitate-ikasleek 400 euroko laguntza osagarria jasoko dute.

Aurreko ikasturtean, 10.700 unibertsitate-ikasle inguru izan ziren Hezkuntza Sailaren unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko beka deialdiaren onuradun.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak

INDARKERIA MATXISTAREN EREMUAN ARRETA HOBETZEKO III. AKORDIOA URTARRILAREN 19AN SINATUKO DA LEHENDAKARIA BURU DELA

- **Artolazabal sailburuak gaur aurkeztu dio Gobernu Kontseiluari biktima diren emakumeei arreta integralagoa eta pertsonalizatuagoa emateko aurrerapauso nabarmena izango den akordioa**
- **Arau-testuinguru berriak eta protagonismoa hartzen ari diren indarkeria-mota berriek justifikatzen dute hura berritzea, haren esanetan**

Beatriz Artolazabal, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketarako Sailburuak gaur aurkeztu dio Gobernu Kontseiluari Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko III. Akordioa. Akordio hau abenduaren 20an onartu zuen akordioaren jarraipen batzordeak Emakunden egin zuen bileran eta datorren urtarrilaren 19an egingo dute erakundeek honen sinadura ofiziala, Iñigo Urkullu buru izanda, Lehendakartzan egingo den ekitaldian.

Akordioa 2001ean sinatu zen lehen aldiz, eta 2009an eguneratu zen eta honen helburua da tratu txarren eta sexu-erasoen biktimen arretan inplikaturik dauden erakundeen arteko koordinazioa, haiei babes osoa bermatzeko sanitario, polizial, judizial eta soziala.

Artolazabalek, aurreko bi akordioek ekarri dituzten aurrerapenei balioa eman ondoren, hirugarren akordio baten beharra defendatu du “azken hamarkadetan izan diren arau eta gizarte aldaketengatik”. Adierazi duzun bezala, “garrantzi handiko lege-aldaketak egin dira, : Istanbulgo Hitzarmena, haurrak eta nerabeak babesteko Legea, genero-indarkeriaren aurkako Estatu Ituna, sexu-askatasuna bermatzeko Legea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea..., eta, ondorioz, beharrezkoa da akordioaren edukiak eguneratzea eta protokoloak eta koordinaziorako bestelako tresnak berrikustea”. Era berean, esan duenez, “aldaketa sozialak gertatu dira, eta, horien ondorioz, indarkeria-mota batzuek protagonismo handiagoa hartu dute, eta emakumeen aurkako indarkeria matxista mota berriak sortu dira, hala nola, Internet, sare sozial, gailu mugikorren bitartez edo, adibidez, ikusgarritasun handiagoa lortu duten indarkeria mota batzuk, hala nola, taldeko erasoak edo mendekotasun kimikoa deitutakoaren erabilera”. Artolazabalen iritziz, aldaketa horiek guztiek, bai arauak bai gizartekoak, akordioa eguneratu beharra dakarte.

Adierazi duenez, hirugarren akordioaren sinadura “urrats garrantzitsua izango da bere helburu nagusietako batean: biktimen beharrak erdigunean jartzea”.

Besteak beste, aurrerapauso garrantzitsua izango da biktimei arreta integralagoa eta pertsonalizatuagoa emateko eta biktimak birbiktimizatzea saihesteko.

Ekarriko dituen aurrerapenen artean, indarkeria matxista mota guztiak aipatzea dago, adibidez, ez bakarrik bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria, familia barrukoa eta sexu-indarkeria; baita emakumeak, haien seme-alabak eta inguruko beste pertsona batzuk biktima gisa aitortzea ere, arlo horretako arau-testuinguru berriarekin bat etorriz.

Beste aurrerapen bat kasuen detekzio goiztiarrarekin lotuta dago; izan ere, akordioak eremu eta sistema guztietako erakunde guztien proaktibitatea sustatzen du, eta erakunde sinatzaileen konpromisoak zabalitzen ditu emakume biktimei arreta ematen dieten profesionalen prestakuntzari dagokionez.

Akordioak erakundeen arteko koordinazio-lana indartzen du, lurralde historiko bakoitzean koordinazio-talde berriak sortuz eta urtero elkartruckerako eta prestakuntzarako topaketa bat antolatuz, hainbat eremu eta sistematako profesionalentzat. Eta beste hobekuntza bat izango da jarduera koordinatuaren protokoloak, III. Akordio honen bidez, argitasun eta zehaztasun handiagoa eskaintzen duela sistema bakoitzeko operadoreek jarraitu beharreko jarraibideei dagokienez. Edukiak eremu bakoitzeko eragileak eta horien funtzionamendua ezagutzea errazten du.

Era berean, akordioak aukera emango du adituek edo eragindako pertsonen erakunde eta elkarteetako kideek batzordean parte hartzeko, eta hezkuntzaren, etxebizitzaren eta enpleguaren esparruetarako jarraibideak jasoko ditu berariaz. Emakundek koordinatutako batzordea Eusko Jaurlaritzako sei sailek osatzen dute (Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak; Segurtasuna; Osasuna; Lana eta Enplegua; Hezkuntza; eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak), Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusiak, hiru aldundiek, EUDELeK, , Legelarien Euskal Kontseiluak eta Euskal Osasun Kontseiluak; eta, gainera, hainbat lantalde teknikotan hedatzen da hauen jarduna.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK KULTURA ONDAREA SARIAREN SEIGARREN DEIALDIA ONARTU DU

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak “Kultura Ondarea Saria” emateko deialdia egin du, Euskal Kultura Ondarearen ezagutza, materiala zein immateriala, gazteen artean zabaltzen laguntzeko. Deialdia Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailako, Batxilergoko lehen mailako eta 2022-2023 ikasturteko Lanbide Heziketako Erdi Mailako Zikloetako lehen mailako ikasleei zuzenduta dago. Ikasleek 3 eta 10 minutu bitarteko iraupena duten bi bideo (bideo bat eta bere making-of-a) aurkeztu beharko dituzte, gutxienez 3 eta gehienez 6 pertsonako taldeek osotutak.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 30.000 euro bideratuko ditu deialdi honetara, honako helburu hauekin:

- Kultura berritzailea sustatzea eta Euskal Kultura Ondareari buruzko ezagutza ikertzeko, berreskuratzeko eta eraikitzeko ahalegina aitortzea.
- Euskal Kultura Ondarea ezagutaraztea Euskal Hezkuntza Sistematik eta Euskal Hezkuntza Sistemarentzat.
- Hezkuntza-ekimen berritzaileak abian jartzen laguntzea.
- Gazteek Euskal Kultura Ondareari lotutako ezagutzaren balorizazioan eta eraikuntzan duten zeregina aitortzea.
- Gazteen artean tresna teknologikoen erabilera sustatzea, jabetza publikoko kultura- eta hezkuntza-edukiak sortzeko.

Hiru bideorik onenak aurkeztu dituzten lantaldeetako kideek, haien tutoreek eta ikastetxeek 7 eguneko kultura-bisita jasoko dute Napolira, bertako leku esanguratsuenak eta kultura ezagutzeko. Ikastetxeek diploma bat ere jasoko dute eta bideo gehien aurkezten duen ikastetxeak aitortza-plaka bat jasoko du.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo

GOBERNU KONTSEILUAK 283.000 EURO EMANGO DIZKIO BERRIZ ENPRESA ENPRESA-TRANSMISIOKO PROGRAMARI

Jaurlaritzaren Kontseiluak, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren proposamenez, erabaki-proposamena onartu du, zeinaren bidez jakinarazten baita lankidetzeta-hitzarmen bat sinatuko dela Euskadiko merkataritza-ganbarekin, Berriz Enpresa programa garatzen jarraitzeko.

Berriz Enpresa Eusko Jaurlaritzaren ekimen bat da, merkataritza-sektoreari zuzendua, eta jarduera ekonomikoaren jarraipena sustatzera bideratuta dago, saltzailearen eta eroslearen aholkularitzaren bitartez, egokitasunaren analisiaren, enpresaren balorazioaren, negozio-planaren azterketaren eta merkataritza-enpresen balorazioan eta transmisioan laguntzearen bitartez.

Finantzatu beharreko zenbatekoa dirulaguntza izendun bidez ematen da, eta 2022an 283.000,00 eurokoa da. Datorren astean luzapen-gehigarri bat egingo da Gobernu Kontseiluan, 2023rako programa horri eusteko.

Berriz Enpresa Eusko Jaurlaritzak sustatutako eta Euskadiko Merkataritza Ganbarek garatutako programa bat da, Euskadiko merkataritza, ostalaritza eta ostatu sektoreetan enpresen jarraipena errazteko. Enpresen transmisioa modu neutral, garden eta fidagarrian erraztea bilatzen du, informazioa eta aholkularitza emateko. Alde batetik, negozioen jarraipena bilatzen du, eta, bestetik, ekintzaileei eta inbertitzaileei martxan dauden negozioak eskuratzeko aukera eskaintzen die. Zerbitzu integrala, pertsonalizatua, malgua eta konfidentziala eskaintzen du erosle eta saltzailearentzat.

|

Economía y Hacienda

EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA EL PROYECTO DE LEY DEL PLAN VASCO DE ESTADÍSTICA 2023-2026 CON UN TOTAL DE 255 OPERACIONES ESTADÍSTICAS Y CON UN COSTE DE 86 MILLONES DE EUROS EN EL CUATRIENIO

El Consejo de Gobierno ha aprobado el Proyecto de Ley del Plan Vasco de Estadística 2023-2026 remitido por el Eustat-Instituto Vasco de Estadística. Dicho Proyecto plantea la elaboración de un total de 255 operaciones estadísticas a realizar por toda la organización estadística vasca, con un coste de 86 millones de euros en el cuatrienio. La Ley del Plan es el instrumento ordenador de la actividad estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi durante los cuatro años y será remitido al el Parlamento Vasco para su aprobación.

El Plan Vasco de Estadística contempla las estadísticas y otras actividades de esta naturaleza a realizar durante su periodo de vigencia. En el cuatrienio se van a realizar 255 operaciones estadísticas, 26 operaciones estadísticas más que el Plan anterior, 2019-2022, que corresponde a un saldo de 34 altas y 8 bajas.

El coste total del Plan 2023-2026 es de 86,6 millones de euros y Eustat participa del 71,6% del coste total, seguido del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente con un 7,2%, del Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes con un 4,7% y del Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales con un 4,1%.

De las 255 operaciones estadísticas contempladas en este Plan 2023-2026, Eustat es responsable de 131 de las operaciones y los Departamentos tienen la siguiente distribución:

- Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente: 32 operaciones
- Cultura y Política Lingüística: 15 operaciones
- Planificación Territorial, Vivienda y Transportes: 14 operaciones
- Igualdad, Justicia y Políticas Sociales: 14 operaciones
- Salud: 11 operaciones
- Gobernanza Pública y Autogobierno: 10 operaciones
- Turismo, Comercio y Consumo: 10
- Trabajo y Empleo: 9 operaciones
- Economía y Hacienda: 4 operaciones
- Seguridad: 4 operaciones

Aparecen también como participantes las tres Diputaciones Forales y Lehendakaritza.

Por áreas temáticas, la de más coste es Demografía y hábitos sociales que supone el 13,4% del total del Plan, seguido de Cuentas Económicas con el 12,3% y de Infraestructura estadística con el 12,1%.

Para su elaboración, se utiliza como fuente de datos la información administrativa en 70 operaciones estadísticas y en 50 más se incorpora como información auxiliar o mixta como fuente. Además, hay nueve operaciones estadísticas que ya incorporan las fuentes digitales para producir dichas estadísticas.

Además, la Ley del Plan incluye la adaptación de la Ley de Estadística a las nuevas necesidades de la actividad estadística y a las nuevas fuentes de información.

El Plan Vasco de Estadística 2023-2026 ha sido fruto de la reflexión de todos los componentes de la Organización Estadística Vasca y de los diferentes agentes sociales que han participado en los grupos de trabajo creados para ello.

Educación

EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN INCREMENTA EN 4,7 MILLONES DE EUROS LA CUANTÍA DESTINADA A LAS BECAS UNIVERSITARIAS DEL CURSO 2022-2023

- **El alumnado universitario beneficiario de la beca durante este curso 2022-2023 recibirá una ayuda complementaria de 400 euros**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, ampliar en 4.772.680 euros el importe de la convocatoria de becas para realizar estudios universitarios y otros estudios superiores en el año académico 2022-2023.

Esta cuantía de ampliación se suma al importe de la convocatoria de becas universitarias del Departamento de Educación para el presente curso - aprobada el 21 de junio de 2022- que ya cuenta con un importe de 28.560.000 euros.

Gracias a esta ampliación, el alumnado universitario que durante este curso 2022-2023 sea beneficiario de la beca recibirá una ayuda complementaria de 400 euros.

El pasado curso 2021-2022 fueron beneficiarios de la convocatoria de becas para realizar estudios universitarios y otros estudios superiores, además de las ayudas destinadas a sufragar los gastos de transporte de los estudiantes universitarios con especiales dificultades de movilidad, cerca de 10.700 alumnos y alumnas vascas.

Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

EL LEHENDAKARI PRESIDIRÁ LA FIRMA DEL III ACUERDO PARA LA MEJORA DE LA ATENCIÓN EN EL ÁMBITO DE LA VIOLENCIA MACHISTA EL PRÓXIMO 19 DE ENERO

- **La Consejera Artolazabal ha informado al Consejo de Gobierno de este acuerdo que supone un paso importante hacia una atención más integral y personalizada de las mujeres víctimas**
- **El nuevo contexto normativo y las nuevas formas de violencia que adquieren protagonismo justifican su renovación, según ha señalado**

La Consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, Beatriz Artolazabal, ha informado hoy al Consejo de Gobierno del III Acuerdo para la mejora de la atención de mujeres víctimas de violencia machista, que se aprobó el pasado 20 de diciembre en la comisión de seguimiento del acuerdo reunida en Emakunde y que será ratificado con una firma institucional presidida por el Lehendakari Iñigo Urkullu el próximo 19 de diciembre en un acto que se celebrará en Lehendakaritza.

El acuerdo se firmó inicialmente en 2001 y se actualizó en 2009, y tiene como fin la coordinación entre las instituciones implicadas en la atención a las víctimas de maltrato y agresiones sexuales, de modo que se les garantice una protección integral sanitaria, policial, judicial y social. Este tercer acuerdo va a suponer un paso importante en uno de sus grandes objetivos: poner las necesidades de las víctimas en el centro.

Artolazabal, tras poner en valor los avances que han supuesto los dos anteriores acuerdos, ha defendido la necesidad de un tercer acuerdo por los cambios normativos y sociales que se han producido en las últimas décadas. Tal y como ha señalado, “se han producido cambios legislativos de gran relevancia que hacen necesario actualizar los contenidos del acuerdo y revisar los protocolos y otro tipo de instrumentos para la coordinación: Convenio de Estambul, Ley de protección de infancia y adolescencia, Pacto de Estado contra la Violencia de género, Ley de garantía de Libertad sexual, Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres...”. Asimismo, ha dicho, “se han producido cambios sociales que han significado que algunas formas de violencia adquieran mayor protagonismo, así como que emerjan nuevas formas de violencia machista contra las mujeres, como, por ejemplo, las surgidas en un contexto de relaciones sociales mayoritarias a través de Internet, redes sociales, dispositivos móviles, o, por ejemplo, formas de violencia que han adquirido mayor visibilidad como agresiones en grupo o el uso de la llamada “sumisión química”. En opinión de Artolazabal, todos estos cambios, tanto normativos como sociales, obligan a actualizar el acuerdo.

El III Acuerdo, asimismo, “va a suponer un paso importante hacia una atención más integral y más personalizada de las víctimas y evitar su revictimización”, tal y como ha declarado.

Entre los avances, se va a tomar como referencia a todas las formas de violencia machista, no solo violencia de pareja o expareja, intrafamiliar y violencia sexual, y el reconocimiento como víctimas a las mujeres, sus hijas e hijos y otras personas del entorno, en coherencia con el nuevo contexto normativo.

Otro de los avances tiene que ver con la detección precoz de los casos, ya que el acuerdo promueve la proactividad de todas las instituciones de todos los ámbitos y sistemas y amplía los compromisos de las instituciones firmantes en relación con la formación de las y los profesionales que atienden a las mujeres víctimas.

El acuerdo refuerza el trabajo de coordinación interinstitucional, creando nuevos grupos de coordinación en cada territorio histórico y organizando anualmente un encuentro de intercambio y formación dirigido a profesionales de los diferentes ámbitos y sistemas. Y otra de las mejoras será que el protocolo de actuación coordinada ofrece, a través de este III Acuerdo, una mayor claridad y concreción en relación con las pautas que deben seguir los diferentes operadores de cada uno de los sistemas. Su contenido facilita conocer los operadores de cada ámbito y su funcionamiento.

Asimismo, el acuerdo permitirá la participación en la comisión de personas expertas o pertenecientes a organizaciones y asociaciones de personas afectadas, e incorpora específicamente pautas para los ámbitos educativo, de vivienda y de empleo.

La comisión, coordinada por Emakunde, la integran seis departamentos del Gobierno Vasco (los departamentos de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales; Seguridad; Salud; Trabajo y Empleo; Educación; y Planificación Territorial, Vivienda y Transportes), el Consejo General del Poder Judicial, la Fiscalía Superior del País Vasco, las tres diputaciones, EUDEL, Consejo Vasco de la Abogacía y Consejo Médico Vasco; y se despliega en varios grupos técnicos de trabajo.

Cultura y Política Lingüística

GOBIERNO VASCO APRUEBA LA SEXTA CONVOCATORIA DEL PREMIO KULTURA ONDAREA SARIA

El Departamento de Cultura y Política Lingüística convoca el premio “Kultura Ondarea Saria” para contribuir a la difusión del conocimiento del Patrimonio Cultural Vasco, tanto material como inmaterial, entre la juventud. La convocatoria está dirigida a estudiantes de tercero y cuarto curso de Educación Secundaria Obligatoria, primer curso de Bachillerato y primer curso de Ciclos Formativos de Grado Medio de Formación Profesional del curso 2022-2023 que deberán presentar dos videos (un video y su making-of) de entre 3 y 10 minutos de duración elaborados por un mínimo de 3 y un máximo de 6 estudiantes.

El Departamento de Cultura y Política Lingüística destinará 30.000 euros a esta convocatoria que tiene como objetivo:

- Fomentar la cultura innovadora y el reconocimiento al esfuerzo por investigar, recuperar y construir el conocimiento sobre el Patrimonio Cultural Vasco.
- Dar a conocer el Patrimonio Cultural Vasco desde y para el Sistema Educativo Vasco.
- Apoyar la puesta en marcha de iniciativas educativas innovadoras.
- Reconocer el papel de la juventud en la valorización y construcción del conocimiento vinculado al Patrimonio Cultural Vasco.
- Fomentar entre la juventud la utilización de herramientas tecnológicas para crear contenidos culturales y educativos de dominio público.

Las personas integrantes de los equipos de trabajo que hayan presentado los tres mejores videos, así como su tutor o tutora y el centro educativo recibirán como premio una visita cultural a Nápoles de 7 días de duración para conocer sus lugares más emblemáticos, así como su cultura. Los centros educativos también recibirán un diploma y el centro educativo que más video presente recibirá además una placa de reconocimiento.

Turismo, Comercio y Consumo

EL CONSEJO DE GOBIERNO DOTA CON 283.000 EUROS AL PROGRAMA DE TRANSMISIÓN EMPRESARIAL BERRIZ ENPRESA

El Consejo de Gobierno ha aprobado a propuesta del Departamento de Turismo, Comercio y Consumo, la Propuesta de Acuerdo por el que se comunica la suscripción de un convenio de colaboración con las Cámaras de Comercio de Euskadi para la continuidad del desarrollo del programa “Berriz Enpresa.

Berriz Enpresa es una iniciativa del Gobierno Vasco dirigida al sector comercial y orientada a promover la continuidad de la actividad económica mediante el asesoramiento tanto del vendedor, como del comprador, mediante el análisis de idoneidad, valoración de la empresa, estudio del plan de negocio y apoyo en la valoración y transmisión de las empresas comerciales.

El importe a financiar se concede mediante subvención nominativa y en el año 2022 asciende a 283.000,00 euros. La semana que viene se realizará, en Consejo de Gobierno una Adenda de prórroga para mantener este programa para 2023.

Berriz Enpresa es un programa promovido por el Gobierno Vasco y desarrollado por las Cámaras de Comercio Vascas con el fin de facilitar la continuidad empresarial en los sectores de comercio, hostelería y alojamiento de Euskadi. Busca facilitar la transmisión de empresas de una manera neutral, transparente y fiable; que facilite información y asesoramiento. Por un lado, busca la continuidad de negocios y por el otro ofrecer a emprendedores e inversores la oportunidad de adquirir negocios que están en marcha. Ofrece un servicio integral, personalizado, flexible, confidencial para comprador y vendedor.